

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Enpresa bat aurrera eramateko, funtsezkoak diren baliabide batzuk daude. Horretarako, gure proiektuaren eskaintza proposamena modu egokian hedatu ahal izateko eta, gure bezeroengana mezua heltzeaz ziurtatzeko, hainbat baliagaiak erabiliko ditugu.

Gure funtsezko jarduerak gure **bezeroetan eta animalietan oinarrituta** izango dira. Gure enpresan, animalien laguntza izango dugu, gure bezeroen, kasu honetan, zaharren mugimendu-ahilezia akuilatzeko.

Lokalaren barruan **hainbat ariketa** egingo dituzte animaliekin batera. Beste batzuetan, eserita egongo dira lokalaren barruan edo, honetatik ibiltzen, eta animalien laguntasuna izango dute momentu guztietan. Gainera, aukera izango dute hilabetero behin edo bitan, animalia batzuekin kalera atera ahal izateko buelta bat ematera, eta pixka bat egurastatzeko.

Beste aldetik, astero talde bakoitzak izango du aukera **guztion artean** ordu bat edo ordu eta erdi zehar **hitz egiteko**, haien esperientziaz hitz egiteko, haien familiaz hitz egiteko, edota haien artean haien arazorik komentatzeko ahalmena izango dute. Hala ere, edozein arazorik izatekotan gure bezeroen artean, edo baten batek haren arazoak kontatu nahi ez baditu elkarrekin eta bakarrik mediku batekin, **psikologo bat izango** dugu enpresan, erraztasuna eskaini ahal izateko modu horretan.

Azkenik, gure enpresak eskaintzen dituen gauzen artean, gurea **eskainiko** egingo ditu hainbat **txangoak Bilbotik**, eta egitekotan, Bilbotik kanpo, baina ez oso urrun. Izan ere, autobusen enpresa bat kontratatuko dugu txangoak egiteko, gure bezeroen bat behar izatekotan, horiei aisetasun eman ahal izateko. Horretarako, begiratu behar izango ditugu hainbat autobus enpresak, eta zeinek eskaintzen dituzten zerbitzurik hoberenak

Txango horien bitartez, **kultura sustatu** egingo dugu, gure bezeroei hainbat museoetara eramaten, antzerkietara, zinemara, etab. Horretarako, saiatuko egingo gara deskontuak lortzen, hauetako leku eta zerbitzu askok eskaintzen dituztelako. Amaitzeko, hemen txertatuko ditugu zenbait leku gure bezeroak bisitatu ahal izango dituztenak:

- Guggenheim museoa    ·Azkuna Zentroa            ·Gernikako Bakearen Museoa
- Arriaga antzerkia        ·Doña Casildako parkea    ·Bizkaia Zubia
- Enparantza Berria      ·Euskal Museoa            ·Bilboko Arte Eder Museoa
- Udaletxea                ·Itsas museoa              ·Bilboko Berreginen Museoa